

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

1138

EBAZPENA, 2023ko otsailaren 22koa, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren idazkari nagusiarena, 2023rako 2030 Agenda Bonuen Programa izeneko dirulaguntzak deitzen dituen.

Otsailaren 15eko 23/2022 Dekretuak 2030 Agenda Bonu Programa izeneko dirulaguntzak arautzen ditu. 2030 Agendaren arloko proiektuetarako dirulaguntzak dira, euskal elkarte-sareko erakundeek 2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin erlazionatuta (aurrerantzean GJH) garatutako dibulgazio-, hezkuntza-, prestakuntza edo partaidetza-ekintzak sustatzeko eta ugaltzeko errefortzu gehigarri gisa.

Dekretu horren 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, bidezkoa da dirulaguntza horietarako deialdia egitea 2023rako. Dirulaguntza horiek Lehendakaritzaren 2023rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota daude. Plan hori Lehendakaritzaren idazkari nagusiaren 2023ko urtarrilaren 18ko Ebazpenaren bidez onartuzen, eta honako helbide honetan argitaratu zen: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/proiektua/lehendakaritzaren-2023ko-diru-laguntzen-plan-estrategikoa/>

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ebazpen honen xedea da 2023rako 2030 Agenda Bonuen Programa izeneko dirulaguntzen deialdia egitea, 2030 Agenda Bonuen Programa izeneko dirulaguntzak arautzen dituen otsailaren 15eko 23/2022 Dekretuan ezarritako baldintzak bete eta dirulaguntza horiek eskuratu nahi dituzten entitateentzat.

2. artikulua.– Dirulaguntzen zuzkidura ekonomikoa.

Deialdi honetara bideratutako baliabide ekonomikoen zenbateko osoa 500.000 eurokoa da, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2023rako Aurrekontu Orokorren kargura.

3. artikulua.– Eskabideak aurkezteko modua eta epea.

1.– Eskabideak elektronikoki aurkeztu beharko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartutako identifikazio- eta sinadura elektronikoko sistemetako bat erabiliz (<https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>).

2.– Deialdiko laguntzak jasotzeko eskabideak bide elektronikoz egingo dira, <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1210402> webgunean eskuragarri dagoen eredu normalizatuan.

Eskabidearen ondorengo izapideak, jakinarazpenak eta justifikazioak barne, Euskadiko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa «nire karpeta» bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

3.– Ordezkarri baten bidez elektronikoki ere izapidetu ahal izango da, eta, horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Ahalordetzeen Erregistro elektronikoa inskribatu ahal izango da, helbide honen bidez: <https://euskadi.eus/ordezkarriak>

4.– Eskabideak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

4. artikulua.– Diruz lagundutako proiektuak gauzatzeko epea.

Diruz lagundutako proiektua 2023an hasi beharko da, eta urte horretako azaroaren 15ean amaituta egon beharko du.

5. artikulua.– Ebaluazio-batzordearen osaera.

1.– 2022ko otsailaren 15eko 23/2022 Dekretuaren 11.2 artikuluan aipatzen den ebaluazio-batzordeak, zeinak aztertu eta ebaluatuko baititu dirulaguntza-eskabideak, honako pertsona hauek osatuko dute:

– Asier Aranbarri Urzelai, Berrikuntza Sozialaren zuzendaria, batzordeburua izango dena.

– Mikel Meneses Arenas, Berrikuntza Sozialaren Zuzendaritzako teknikaria, batzordekide izango dena.

– Ianire Abad Peña, Berrikuntza Sozialaren Zuzendaritzako teknikaria, batzordeko idazkari izango dena.

2.– Otsailaren 15eko 23/2022 Dekretuaren 11.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, ebaluazio-batzordeak Lehendakartzako berdintasunerako administrazio-unitateko berdintasun-teknikariaren aholkularitza aditua izango du, eta hitza izango du, baina botorik ez.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke organo horri, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 22a.

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren idazkari nagusia,
JUAN ANTONIO FERNÁNDEZ ERDOCIA.

I. ERANSKINA

I.– Eskabidea aurkeztea, dagokion inprimaki elektronikoaren bidez.

1.– Identifikazioa egoitza elektronikoan.

- Organo Instruktoari zuzendua: Berrikuntza Sozialaren Zuzendaritza.
- Honela dihardu: espedientean interesa duen pertsona/erakundea da, edo haren ordezkaria.
- Identifikazio-dokumentua: Zenbakia:
- Erakundearen izena:
- Harremanetarako pertsona.
- Izen-abizenak
- Identifikazio-dokumentua: Zenbakia:
- Komunikazioak eta jakinarazpenak helbide honetara bidaliko dira:
- Espediente hau izapidetzen ari denean administrazioak bidaltzen dituen komunikazioek helburu hauek izango dituzte:
- Jakinarazpen- eta komunikazio-kanala.

Elektronikoa: «Nire Karpetaren» jakinarazpen eta komunikazioen erretilura bidaltzen dira. Sartzeko, identifikazio elektronikorako bitarteko bat behar da.

Kanal elektronikoari buruzko oharra: Jakinarazpen elektronikora sartzen ez bazara, jakinarazitzat joko da «Nire Karpetan» eskuragarri jarri eta 10 egun natural igarotzen denetik aurrera. Adierazitako epea bete ondoren, jakinarazpena atzera bota duzula ulertuko da, eta hala jasoko da espedientean. Izapidea gauzatutzat joko da, eta administrazioak aurrera egingo du prozedurarekin.

– Abisuak jasotzeko datuak.

Ohar bat bidaliko dizugu posta elektronikora eta telefono mugikorrera jakinarazpenen edo komunikazioen bat daukazunean «Nire Karpetan».

Posta elektronikoa:

Telefono mugikorra:

– Komunikazio-hizkuntza.

Mezu elektronikoaren eta abisu-mezuen bidez bidaliko zaizkizun jakinarazpenak eta komunikazioak zuk adierazitako hizkuntzan egongo dira.

Euskara/Gaztelania.

– Datuak erabiltzeko baimena.

Nahi dut nire komunikazio- eta abisu-datuak, oro har, Eusko Jaurlaritzako sail eta organismoekin ditudan harremanetan erabiltzea.

Nahi dut nire komunikazio- eta abisu-datuak espediente hau kudeatzeko soilik erabiltzea.

2.– Datuak betetzea.

– Erakunde eskatzailearen datu fiskalak jasotzen diren Lurralde Historikoa/Probintzia.

Lurralde Historikoa/Probintzia.:

Erakunde eskatzailea:

Erakundearen arduraduna.

Izena:

Abizenak:

Harremanetarako telefonoa:

– Beste finantzaketa-iturriak

Finantzaketa-iturria/kopurua.

3.– Dokumentuak eranstea.

Aurkeztutako dokumentuak: dokumentu mota/lzena.

4.– Sinadura Elektronikoa.

Elektronikoki sinatua:

II. Proiektuaren memoria

1.– Proiektuaren datuak.

– Lurralde-eremua: Araba/Bizkaia/Gipuzkoa.

– Proiektuaren izena:

– Proiektuaren helburuak:

– Egin beharreko jardueraren deskribapen laburtua:– Bere garapenean parte hartuko duten pertsonen kopurua:

– Programaren hartzaileak (generoen bereizita):

Zuzeneko eta zeharkako biztanleria hartzailearen kuantifikazioa

Zuzeneko biztanleria, Emakumeak/adin-tartea: Gizonak/adin-tartea:

Zeharkako biztanleria, Emakumeak/adin-tartea: Gizonak/adin-tartea:

– Aurrekontu xehatua:

– Egingo diren jardueren egutegia: Aktibitatea/Data/Modua.

2.– Giza baliabideak eta baliabide materialak.

– Giza baliabideak:

Prestakuntza/Esperientzia/Parte-hartze maila.

Berdintasunaren arloko prestakuntza eta/edo ibilbidea.

Erakundearen izena

– Nola txertatu nahi den genero-ikuspegia proiektuan (diseinua, helburuak, metodologia eta adierazleak).

– Baliabide materialak: erakunde eskatzaileak proiektua gauzatzeko dituen baliabide materialak.

– Emateko dauden eskatutako dirulaguntzak:

Beste dirulaguntza bat eskatu duzu? Bai/Ez.

Zein erakunderi eskatu zaion:

Erakundea/Eskatutako kopurua/ Aurrekontua Guztira

– Erantzukizunpeko adierazpenak eta bateragarritasun-adierazpenak.

Adierazten dut erakunde eskatzaileak:

Ez da xede bererako laguntza edo dirulaguntzarik jasotzen ari administrazio publiko edo erakunde pribatuetatik.

Helburu bererako laguntza edo dirulaguntzaren bat jasotzen ari da administrazio publiko edo erakunde pribatuetatik. (Puntu honetako datuak dagokion dokumentuan zehaztu behar dira).

Helburu bererako laguntza edo dirulaguntza eskatu dio administrazio publiko edo erakunde pribaturen bati, eta ebazpenaren zain dago (Puntu honetako datuak dagokion dokumentuan zehaztu behar dira).

Ez dago Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 zein 13.3 artikuluan araututako dirulaguntza baten onuradun izatea eragozten duen egoeraren batean.

Ez du dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten dion zehapen administratiborik edo penalik, eta ez du horretarako legezko inolako debekurik, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoaren arabera.

Ez dago laguntzak berreskuratzeke agindu baten menpe, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpoko eta barne-merkatuarekin bateraezina dela.

Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioak izanik, ez dago Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen lehen xedapen iragankorrean jasotako kasuan.

Indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak betetzen ditu.

Egiazkoak eta osoak dira eskabide honetako datu guztiak, bai eta aurkezten dudan dokumentazio guztia ere, eta nire gain hartzen dut dagokion erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

Erantzukizunpeko adierazpen edo komunikazio bati eransten zaion edozein datu edo informazio ez zehaztea, faltsutzea edo ez adieraztea, edo erantzukizunpeko adierazpena administrazio eskudunaren aurrean ez aurkeztea, adierazitakoa betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo jakinarazpena, ukitutako eskubide edo jarduerarekin jarraitzeko ezintasuna ekarriko du, egitate horien berri jakiten den unetik aurrera, gerta litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboei kalterik egin gabe (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

II. ERANSKINA

Justifikazio-memoria

1.– Proiektuaren datuak.

Proiektuaren izena:

Gauzatze-data:

Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntza:

Beste erakunde batzuek emandako dirulaguntza:

Erakunde hartzaileak ordaindutako zenbatekoa:

Diruz lagundutako proiektua gauzatzeko gastuak (gastuen jatorrizko fakturak edo kopia konpultsatuak erantsi beharko dira):

Programa honen emakume onuradunen gutxi gorabeherako kopurua

Programa honen gizon onuradunen gutxi gorabeherako kopurua

Proiektuaren garapenaren deskribapena:

Nola txertatu den genero-ikuspegia proiektuan (diseinua, helburuak, metodologia eta adierazleak).

Azken balorazioa.

2.– Proiektua gauzatzeko egindako materiala

Programak:

Iragarki-kartelak:

Argazkiak:

Material grafikoa, idatzia edo soinuduna:

Parte-hartzaileen sinadurak:

Besteak:

Erakunde interesdunaren ziurtagiria, proiektuan parte hartu duten pertsonen kopurua jasotzen duena.

Titularraren edo ordezkariaren sinadura.